



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



LEGELARIA

Grezia eta Europar Batasuna. Eta herritarrok eta politika?

GREZIAREN ETORKIZUNA kolokan egotea bukatzeaz dago azken hilabeteetako negoziazioen eta kezken ondoren, formalki behintzat. Greziak Europar Batasunaren (EB) baldintzak onartu ditu, erreferendumean EBren “azken proposamena” herriak errefusatu eta gero.

Grezia galtzaile: lehen erreskatetik hona inposatu zaizkion neurri ekonomikoek –eta oraingoek– pobrezia besterik ez dute ekarri(ko), beste hainbat herrialdetan bezala: zerbitzu publikoen pribatizazioak, eskubide sozialen murrizketak, ondare eta errenta handiei zergak jaitsi eta errenta txikiei zergak igo. Hau da, jarduera ekonomikoa eta enplegua suntsitzea, eta talde eta pertsona ahaltsuen aberastasuna ugaritu da. Hori guztia egin eta gero, Grezia –edo beste edozein herrialde– zulotik ateratzen bada, beste batean murgilduko da: bere menpekotasun ekonomikoa ikaragarri handia izango da, bere baliabideak oso urriak eta bere gizartea zatitua eta orokorrean oso pobretua.

Nork irabazten du? Behin eta berriro errepikatu bada ere, Alemania da garaile. Berak inposatu dizkie baldintzak beste herrialde guztiei eta berak markatzen du erritmoa. Gezurra dirudi, II. Mundu Gerraren ondoren Alemaniak bere zor ekonomikoari heldu ezinean, beste hainbat herrialdek –Greziak barne– barkatu izana

EBk ere ez du gauza handirik irabazten horrelako politikak aplikatuz. Orain bada-kigu herostura ekonomikoak porrot egin duela eta talde ekonomiko handiak asetzeko balio izan duela. Zer irabazten du EBk Grezia hondoratuz, finean zorrak eta irabaziak komunean kudeatu behar badira?

Nork irabazten du? Behin eta berriro errepikatu bada ere, Alemania da garaile. Berak inposatu dizkie baldintzak beste herrialde guztiei eta berak markatzen du erritmoa. Gezurra dirudi, II. Mundu Gerraren ondoren Alemaniak bere zor ekonomi-

koari heldu ezinean, beste hainbat herrialdek –Greziak barne– barkatu izana horren puska handia. Gezurra dirudi horren oroi-men txarra izatea eta berak profitatu zituen abantailak besteei ez aplikatzea. Halere, garaipen hau itxurazkoa besterik ez da: batetik, Alemanian herritarren arteko desberdintasunak ari dira azkar hazten; bestalde, iraganean gertatu zen bezala, etorkizunean ere Alemaniak europarren beharra izango duen –bestela, pentsa ezazue non saltzen du bere ekoizpenaren zatirik handiena–; azkenean, interes ekonomikoek irabazten dute, baina ez herriak. Baina beste ñabardura batzuk ere egin behar dira:

– Greziaren gaurko egoera aurreko gobernuen eta EBren jarreraren ondorioa da: Greziako bankuak neurririk gabe zorpetu ziren, zor pribatu hori publiko bihurtu zen eta bere finantziarioa ere EBren neurri-ra egin zen –jatorrizko zor publikoa handia bazen ere, asko igo da arrazoi horrengatik–.

– Greziaren egoera ez da bakarrik bere erruz: EBk onartu zituen herrialde honek aurkeztu zituen “kontu faltsuak” hitzik esan gabe.

– Grezian aplikatu dira orain arte Troikak inposatutako neurriak: Norvegiaren atzetik, Grezia da defizita gehien murriztu duen herrialdea, baita gehien eta azkarren gastu publikoaren kopurua jaitsi duena ere. Eta neurri horien ondorioak ederki asko ezagutzen dituzte greziarrek. Gainera, erreskatetik jaso duen diru multzorik handiena bankuei ordaintzera joan da.

Eta politika? Eta herria? Eta demokrazia? Tsiprasen Gobernuak erreferenduma iragarri zuenean txalotu nuen ekimen demokratiko hori. Txalotu nuen emaitza greziarren duintasuna jokoan zegoelako, Politikari deia egiten zitziailako eta Tsiprasen posizioa indartzen zelako –negoziazioetan Greziako herri osoa egongo zelakoan–. Ez dakit harrez gero zer gertatu den, zer zailtasun eta “mehatxu” sortu diren, baina argi dago greziarren ahotsa ez dela entzun. Ez greziarrena, ez justizia sozialarena. Nola hartuko da egoera “berri” hau horren argi hitz egin duen herrian? ■